

Ni baño len ere
besteak izaki?
Leza muñean
itzal izigarri!
Orrela izaki?

Utzi nazazu.

Neregandik libratu nai dut,
ta, utzi nazazu osiñean eroria.

Utzi nazazu!...

Otsalar

ESKUARTEAN ZAITUT, «BIOTZ BEGIETAN»

Eskuartean zaitut,
«Biotz begietan»,
etsi eziñikan.

Bizitza labur batek eratzu nai duan
mitxeletaren gisa,
eskuartean zaitut,
oso maiteki.
Zure orri leunen barna
ezti bearrez
maiz abiatzen naizelarik.

Ekaitzak etendako egunsentia
iduriz,
eskuartean zaitut.

Zure leiotik ikusten dedan soroak,
asi orduko suntzitu zan arrobia
edo emaitzak galdutako meaztegia
iduri.

Kantu eralleak, arro;
zu ondatzeagaitik.

Maltzur, maltzur ibeti maltzur!
beren izakiz.

Orain, zorionez,
eskuartean zaitut,
miñezko kanta otsa ixuriz
urteen zurrumurrutik.

Marmari gozoz ari zera
asaba zaarren baratzean
eguna gau biurtzeko beldur,
oroitzapena iraun nairik.
Eskuartean zaitut,
kantu atal gogoangarrien kabi zeran
«Biotz begietan».

Otsalar

ARGI URRIARI

Goiz ezian
sorturik alaiki kantari,
eguerdi larrian
oiñutsik nijoa bidari;
arrats gorrian
sortaldera itzal luzez lurrari,
gau beltzean
suntzi nadin bere azalari.

Dana eskeñiz
bearrezko libertade argi urriari.

Otsalar

BERTSOLARIAK

(1963-ko Iraillaren 22-gnean
Bilbo'n Instituto'ko ballan.)

Zeruan illun, lurrean bere.

Bertsolarien begira